

begoñazpi astekaria



ZURE IBILBIDEAZ HARRO, GOTZONE



Betira arte, Gotzone!

Gure omenaldia



Prest dogu ikasturteko Ateak Zabaltzeko Egunak

Zuon seme-alabek zelan lan egiten daben ikusi eta egiaztatzeko, Ikastola Bertatik bertara! Eskola-jarduera, eguneroko zereginak, jantokia, menuak...

WATCH VIDEO



Historiaurrea Ekoetxean eta Santimamiñen

Santimamiñe eta Ekoetxea Urdaibaira eginiko urteeran, 5 urteko umeek Ikastolan lantzen dagozan historiaurreari buruzko proiektuan sakondu dabe. Gure iragana 'ikusteko' eta kontzeptuak ulertzeko aukera ezin hobea.

MORE INFO

Zure oihartzunak gurean jarraituko dau

Zutaz harro gagoz, Gotzone. Ikastolan emondako urteak bihotz-bihotzez eskertzen deusuguz. Bai ume, bai irakasleoi, lanean eskainitako arreta, erakutsitako kimen zein egindako mesedeei esker, idazkaritza, leku berezi-berezia izan da. Zutaz oroituko gara, zalantza barik. Etapa barri honetan ondo ibiltzea opa deusugu, gozatu eizu. Zure oihartzuna gurean izango da.

*San Adriango Bediarra
Euskaldun peto petoa
sarreran kontrola jartzen
ez badau gauza arraroa
irakasleentzat Ama
aparte itxiz, gerioa
meseda eskatu ta
Gotzone arin hor doa
langiletan langilena
berarentzako traloa
huts-hutsik itxiko dasku
bere bulego txakoa
izena eta izana
hementxe dago jakoa
ekintzakuz, nabarmenduz,
bere giza balioa*

*Batzuetan lasai eta
beste batzuetan larri
heri da lanak dekona
ez jaku, egingo deigarri
gauzak esan behar badira
belarriak tente jarri
berak helburu bat deko
zuzentasuna ezarri
bere txakoa, izaten da
danontzako babesgarri
zeozer faltan bota ta
hor dago eskuragarri
bihotzez, irakasleok
esaten deusugu, alkarri
erbornan gisa zuzela
adar guztien cinarri*


*Gelakideei galdetu
nor dan gure zuzendari
Gotzone hartxe dekozu
lanpostu barria, opari
ahaztu barik goizero
Ikasle ekin deiarri
jantokirako zerrendan
sartzeke deitu berari
Gotzone bakarra dago
bera da bulegolari
babes berezia, ematen
bere boligrafari
nahiz eta urteak joan
Aurre egin bideari
danan artean eskertuz,
pasatako denborari*

BARRIKUNTZAREN ARBELA PODKASTA, ENTZUNGA!

Begoñazpi Ikastolako robotikako talde baten lorpena, gertaera gogoangarria eta garrantzitsua da. Nazioarteko robotika lehiaketa esanguratsuenetakoa dan World Robot Olympiaden (WRO) Munduko Robot Olinpiadaren finalean izango da. Ilusioz gainezka joango dira Galder, Amair eta Garazi ikasleak baita Jokin Bernaola irakaslea be. Entzun zer esan deuskuen:

Begoñazpi Ikastolako talde batek Robotika Olinpiadetan parte hartuko dau Panaman

Begoñazpi Ikastola, jen la final mundial de robótica! ¿Qué es la programación robótica? ¿Qué importancia tiene? ¿Cómo lo han conseguido? Todo eso y mucho más, en el podcast Barrikuntzaren Arbelá:



Robotika taldea, Panamara bidean

